

3.364 langabe gehiago erregistratu dira abuztuan Hego Euskal Herrian

ARGIA/LA HAINE :: 04/09/2024

2010etik abuzturik txarrena izan da eta iazko abuztuan baino ia 3.000 langabe gehiago daude.

Abuztuaren amaieran, 140.770 herritar zeuden langabezian Hego Euskal Herrian; iazko abuztuan baino ia 3.000 gehiago. Berriz, uztailetik abuztura, 3.364 langabe gehiago erregistratu dira. Emakumeak gehienak: ia hamarretik sei.

Herrialdeka, langabeziaren igoera Gipuzkoan nabaritu da gehien -%4,64ko igoera-, eta hurrenez hurren Bizkaian -%2,84-, Araban -%1,29- eta Nafarroan -%0,22-. Denean egin du gora, beraz.

Datu horiek erakusten dutenez 2010etik abuzturik txarrena izan da aurtengoa langabeziari dagokionez, izan ere, abuztuan sinatutako kontratuan %79 aldi baterakoak izan dira. Bestalde, iturri sindikalen arabera, langabezian inskribatutako pertsonen erdiak ez zuen inolako prestaziorik jaso uztailean, eta hirutik batek kotizaziopeko langabezia prestazioa; batezbestekoa 1.000 euroren azpitik.

<https://eh.lahaine.org/3-364-langabe-gehiago-erregistratu>